

## 2.Merkatuaren segmentazioa

Energia ez berriztagarriak sortzen dituzten enpresak dira gure bezero potentzialak, beraien karbono dioxido isuriak murriztuko ditugulako. Horrez gain, eraikuntza-sektoreko enpresak ere dira gure bezeroak, eraikinak egiteko harriak salduko baititugu.

Alde batetik eraikin enpresak eraikitze material garbia, sendoa eta merkea nahi dute eta hori da guk salduko dieguna. Beste aldetik energia ez berriztagarriak sortzen dituzten enpresek haien karbono dioxido isuriak murriztu nahi dituzte isun gutxiago ordaintzeko eta hori da eskainiko diegun zerbitzua.

Baldintza hauek betetzen dituzten segmentuak metal, petrolio edo energia industriak dira, haien isuriak murrizteko. Horrez gain, eraikuntza enpresa publiko edo pribatuak egon daitezke interesatuta.



